

O!

oñati

*hamaika aukera,
hamaika sorpresa*

AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA, ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK, ARANTZAZUKO SANTUTEGIA, KIROL ESKALADA, GOLF, IBILBIDEAK ETA SENDERISMOA, GOMIZTEGI ARTZAIN ESKOLA, PALEONTOLOGIA AZTARNAK, SANDAILI ERMITA, SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA, ERRENAZIMENDUA, ARTE PLATERESKOA, ERDI AROA, ZUMELTZEGI DORRETXEA, BARROKOA, SANTA MARINA PLAZA, FORUEN ENPARANTZA, SAN MIGEL PARROKIA, GEBARATARREN KRIPTA, ERRETAULAK, BIDAURRETAKO MONASTEGIA, CHILLIDA ETA OTEIZA, GANDIAGA TOPAGUNEA, TRADIZIOAK, MENDIA, CORPUS CHRISTI, ARDI TXAKURREN LEHIAKETA, GASTRONOMIA, PINTXOAK, TXOKOLATEA,...









Gure eskerrik beroenak gida hau egiterakoan lagundu digutenei: A.Abián, M.Agirre, Amet, I.Arregi, A.Azpiazu, J.A.Azpiazu, Etxe Aundi, J.Fernandez, A.Goenaga, Gomiztegi S.Coop., S.Mendiola, A.Otaduy, M.Ruiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila eta beste guztioi.

Aurkibidea

	NATURA	4
	Aizkorri-Aratz Parque Naturala	4
	Arrikrutz-Oñatiko Kobak	6
	Kirolak eta aisialdia	8
	OÑATI, HISTORIADUN HERRIA	10
	ARTEA ETA ARKITEKTURA	12
	Obra zibila: Sancti Spiritus Unibertsitatea	12
	Obra zibila: Kultura ondasun babestuak	14
	Obra erlijiosoa: San Migel Parrokia	16
	Obra erlijiosoa: Bidaurretako Monastegia	18
	Obra erlijiosoa: Arantzazuko Santutegia	20
	TRADIZIOAK	22
	GASTRONOMIA	24
	INFO	26
	Non jan eta non lo egin	26
	Bisita gidatuak	27
	Kale izendegia	28



AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA



1. Aizkorriko mendilerroa.
2. Erlea loretan.
3. Arantzazu erreka.
4. Pago basoa.



Parque Naturala 2006an izendatu zuten; azaleran 160 km². Euskadiko bigarren parkerik handiena; %80 Gipuzkoan.

HARTZEN DITUEN LURRALDEAK

- **Gipuzkoa:** Debagoiena (Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati), Goierri (Zegama eta Zerain) eta Urola Garaia (Legazpi).
- **Araba:** Aguraingo eskualdea (Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduondo).
- **Gipuzkoako eta Arabako partzuergo orokorra.**

INGURUNEA

- **Arantzazuko Santutegia.**
- **Arrikruz-Oñatiko Kobak.**
- **Urbiako zelaia, ermita eta ostatua.**
- **Gomiztegi, artzain eskola.**

EZAUGARRIAK

Kantabriar mendikatea eta Pirinioak batzen dituen korridoreko zati bat da. Isurialde bi ditu: Iparrekua (Kantauria-rra) eta Hegokoa (Mediterraneoa).

OROGRAFIA

Leku ikusgarriak eta ederrak ditu; adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko mendirik garaiena, **Aitxuri** (1.551m). Kareharriko mendiak: **Aloña, Aizkorri, Aketegi** (Mari jainkosaren bizilekua) eta Aratz. Urbia moduko sakonuneak eta **Arantzazu** eta **Jaturabe** moduko arroilak, besteak beste.

ARKEOLOGIA AZTARNAK

Parke Naturalean ditugu **Orkatzategi,**

Zaraia, Aizkorri-Urbia, Elgea-Artiako leku megalitikoak, baita hainbat hilobi koba ere.

Erromatar zibilizazioaren joan-etorria erakusten duten aztarnak ere badi-tugu, **Gasteizko galtzada**, Uribarritik, eta erdi aroko aztarnak, **San Adriango galtzadak**.

Fauna eta flora

Aizkorri-Aratz Parke Naturalean paraje ezin ederragoak ditugu: **Arantzazuko arroila** eta **Iturrigorriko** eta **Bellotzako basoak** eta **larreak**. Landaretzari dagokionez, oso aberatsa da, **baso asko du** (pagadi kaltzikolak eta pagadi azidofiloak, haritz kanduduneko haritzia du Urkilla-Elgeako Arabako isurialdean; haritz kandugabeko eta haritz kaltzikolako eremuak...), flora bereziko tokiak, horien artean nabarmen-tzekoa da **Arbarraingoa (Altzaniako mendietan)**, eta mendiko flora interes-garria, kareharrizko gailurretan eta lapiaz eremuetan.





ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK



1. Arrikruz 53 galeria.
2. Sandailiko Koba-Ermita.
3. Arrikruzeko barne aldea.
4. Arrikruzeko ibarra.



Arrikruz-Oñatiko Kobak Gesaltza-Arrikruzeko sistema karstikoan kokatzen dira, **Aizkorriko** mendigunean. **Behe Kretazeoko** materialen gainean garatutako hutsune edo barrunbe batzuk dira (antzinatasunari dagokionez, 150 eta 65 milioi urte artekoak). Material horien gainean garatzen dira **Gesaltza-Arrikruzeko** barrunbeak edo esparrua.

Arantzazu eta **Aldaola** errekek sortu dituzte, eta Gipuzkoako luzeenak dira; guztira luzeran 15 km dituztelarik.

Arrikruz kokaleku aitzindaria izan da Euskadin, espeleologia, arkeologia eta paleontologia esplorazioari dagokionez, **paleontologia aztarna garrantzitsuak** aurkitu izan dira bertan.

Hauk nabarmenduko ditugu:

- **Paleolito garaia:** kobazuloetako lehoiaren eskeleto osoa (Iberiar penintsulako bakarra).
- **Brontze garaia:** Burdina urtzeko labe txiki bat.

KOBAK BALORATZEKO PROIEKTUA

Arrikruz-Oñatiko Kobak-en proiektua, 2007ko ekainaz geroztik ikusgai dagoe-na, **turismo kobetako berrikuntzaren eredu garbia** da. Jendearentzat zabaldu baino lehenago era askotako azterketak (ingurumen, topografia, arkeologia arlokoak) egin ditu Oñatiko Udalak. Arrikruz-Oñatiko Kobak-etako proiektuan informatika-sistema erabat aurreratua erabiltzen da, barne-gidaketak egiteko eta barruko elementu historiko, etnografiko, geologiko eta mineral interesgarriak balioesteko.

INGURUNA

Natura, arte, arkitektura... aberastasun handiko ingurune batean kokatzen dira Arrikruz-Oñatiko Kobak. Nabarmendu behar dugu **Sandaili Koba eta Ermita (San Elias)**, Araotz auzoan; hango urek, kondairak dioenez, antzutasuna sendatzen dute. Eta, jakina, **Arantzazuko Santutegia** eta **Aizkorri-Aratz Parque Naturala**.

Kobak bisitatzea

- **Bisitatu daiteke:** 53 galeria.
- **Iraupena:** 60' (30' lehenago joan behar da. Azken irteera itxi baino ordu bat lehenago. Bisita telefonoz erreserbatzea gomendatzen da).
- **Ibilbidearen distantzia:** 1 km.
- **Autogidaritzako hizkuntzak:** euskara, gaztelania, katalana, frantsesa eta ingelesa.
- **Kokalekua:** Arantzazurako bidean (Araotz auzorantz hartu behar duzu).
- **Ordutegia (astelehenean itxita):**
Goizez urte osoan: 10:00-14:00.
Arratsaldez:
Martxotik maiatzera eta urrian: 10:00-14:00.
Ekainetik irailera: 15:00-19:00.
Azarotik otsailera: 15:00-17:00.

ARGIBIDE GEHIAGO IZATEKO

- **Telefonoa:** 943 082 000
- **Web orria:** www.oinati.org
- **E-posta:** arrikruz@oinati.org

Arrikruz-Oñatiko Kobak proiektua **"Mugarik gabeko lurpea"** eta **ACTE** elkarteetako partaide da (www.cuevasturisticas.com).



KIROLAK ETA AISIALDIA



1. Aitzulo Koba.
2. Usako presa.
3. Mendi-ibilbideen panela.
4. Eskalada Araotzen.



Aukera asko eskaintzen du Oñatik aire libreaz gozatzeko.

KIROLAK

KIROL ESKALADA

Araotz auzoan (Oñatitik 8 km-ra).

IRELORE GOLF ESKOLA

9 zuloko golf zelaia, Uribarri auzoan, Arantzazuko bidean (Soraluze hotelaren ondoan). Telefonoa: 665739477.

TXOPEKUAKO TIRO EREMUA

Tiro eremua Uribarri auzoan dago, Arantzazuko bidean (Txopekua jate-txearen ondoan).

BAINATZEKO EREMUA

Usako presa Zañartu auzoan dago. Bainatzeko eremu bat du, berdegu-neak, dutxak eta sorospen zerbitzua (udan bakarrik).

Gomiztegi

Arantzazu-Gomiztegi ibilbide egokituak eramango gaitu artzain eskolara, eta han bisitatuko ditugu instalazioak, artaldea, gazta egiteko prozesua ikusi, ardi txakurrekin erakustaldiaz gozatu...

Informatzeko telefonoa: 943251008.

IBILBIDEAK ETA SENDERISMOA

IBILBIDE ERRAZAK

Distantzia: 5,5 eta 8,5 km artekoa.

Iraupena: 1:30 ´ eta 2:30 ´ artekoa.

- **SI-Gi-10:** Aloñako mendi-hegalen artean.
- **PR-Gi-104:** Arantzazuko baserrien eremua, "Harria eta Ura" izena ere duena.
- **PR-Gi-105:** Arantzazuko bide ezkutua.
- **PR-Gi-107:** Garagaltza auzoko zirkuitua.

ERDI-MAILAKO IBILBIDEAK

Distantzia: 8,5 eta 11,5 km artekoa.

Iraupena: 3:30 eta 4:30 artekoa.

- **PR-Gi-102:** Uraren bidea Araotzen.
- **PR-Gi-103:** Kontrabandisten bidea.

IBILBIDE GOGORRAK

- **PR-Gi-106:** Erromesen bidea Arrasate eta Arantzazu artean.

Distantzia: 16 km. **Iraupena:** 5:00 ´.

- **Aizkorriko igoera (Urbiatik):**

Desnibela: 820 m. **Iraupena:** 4:00 ´.

Informazio gehiago "Natura eta kirola" liburuxkan; Turismo Bulegoan esku-ratu dezakezu.

ARANTZAZU-GOMIZTEGIKO IBILBIDE EGOKITUA

Gaixotasun kardiobaskularrak, ikusmen, entzumen, adimen urritasunak eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat egokitua.






OÑATI, HISTORIADUN HERRIA



1. Oñatiko ikuspegi panoramikoa.
2. 1934. urteko Korpusak.
3. Foruen Enparantza.
4. Elgeako parke eolikoa.



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dago Oñati, mendiz inguratua. Bere izenak orografia azaltzen du, “muino ugaritasuna”. Ignacio Zuloagak zioen **“Euskal Toledoa”** zela, bertako monumentu eta aberastasunarengatik.

SORRERA

Nahiz eta herriaren sorrera ezezaguna izan, lehen aipamena 1149an egiten da **Ladron de Gebara** Kondeak semeari emandako lur emaria aipatzen baita idatzi batean. **Vela** eta **Gebara** familien titularitateen menpe, **Konderria eta Jaurerria** izan zen XII. eta XIX. mendeen artean. Gaztelako erregeak emandako eskubideei eta sariei esker, botere politikoa, juridikoa, ekonomikoa eta erlijiosoa zituzten kondeek. Herritarrek behin eta berriro saiatu ziren jauntxo haien boteretik libre bizitzen. 1388an eta 1540an Gipuzkoari lotzeko eskatu bazuten ere, hura ez zen gertatu behin betikoz 1845era arte.

Biztanleen ezizena **“txantxiku”** (igela) da, honen azalpena Oñatiko kondeei lotutako kondairetan oinarriturik dago, lehenak izan omen ziren Oñatiko biztanleei horrela esaten.

HERRITARREN BURUJABETASUNA

Oñatiri dagokionez, banderizen leinuak izan dira bere historian eta garapenean izan duten gatazkarik garrantzitsuenak. **Uribarritarren (oñaztarrek)** eta **Gebara** eta **Lazarragatarren** artekoa (**ganboatarrak** ordezkatuz). Alderdien arteko borrokak Oñatiko armarrarian irudikatzen dira: “arranoa”k (ganboatarren ikurra)

“oreina”ren bizkarra (oñaztarren ikurra) urratzen du, eta horrek oñaztarrek ganboatarren uzta suntsitzeko saiakera azaltzeaz gain, ganboatarren garaipena adierazten du.

GAUR EGUN

Gaur egun Oñati herri moderno eta garatua da. Herri langilea, ohitura eta jakintza zaharretatik landutako herentzia bikainean oinarrituta. Horren lekuko dira bertako enpresak, mundu osoan arrakastaz lehiatzen dira eta.

Lope de Aguirre (1514-1561)



Oñatiarra jaiotzez, hainbat euskal “hidalgo” bezala aberastasun bila joan zen Peruko lur emankorretara, existitzen ez zen “El Dorado” lurra aurkitzeko asmoz. Bere burua definitu zuen bezala


gogoratzen du historiak: “bukaerara arte erromes, traidore eta erreboltari”.



ERAIKUNTZA ZIBILA: SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA



1. Sancti Spiritus Unibertsitateko aurrealdea.
2. Jorge Oteizaren eskultura.
3. Mudejar estiloko kasetoidura.
4. Klaustroko arkutaria.



SARRERA

Sancti Spiritus Unibertsitatea, 1540-1548an eraikia, Euskal Herriko lehen unibertsitatea izan zen eta Euskal Herriko berpizkunde garaiko eraikinik garrantzitsuenetakoa da. Unibertsitatea 1551tik 1901era arte egon zen jardunean, Legeak, Teologia, Filosofia, Letrak eta Medikuntza irakasten zuten.

Rodrigo Mercado de Zuazola oñatiar apezpikuak fundatu zuen. Prestakuntza handiko humanista, garrantzi handiko karguak bete zituen garai hartan: Avilako eta Mallorkako apezpiku, Nafarroako erregeorde, Granadako kantzilertzako presidente, Errege Kontseilari eta Cisneros kardinalaren lagun, eta abar...

FATXADA

Nabarmentzekoa **estilo platereskoa duen fatxada** da; haren egiturak Salamankako "Convento de las Dueñas", Valladolid-eko Santa Cruz ikastetxea eta Pietatearen kaperan (San Migel Parrokian) kokatutako fundatzailearen mausoleoa gogora ekartzen dizkigu.

Fatxadako eszenek (mitologikoak, erlijiosoak eta fundatzailearen figura otoitz egiten erakusten dutenak) eta pilastreetako santa eta martiriek, baloreetan oinarritutako jarduna irudikatzen dute, Jaungoikoaren bitartez salbazioa lortzeko bidea erakutsiz.

Fatxadan hainbat **armarri** aurkituko ditugu, fundatzailearena eta Espainiako Carlos I edota Alemaniako Carlos V erregearena, azken honi eman baitzion eraikinaren zaindaritza.

KAPERAK

Kaperan, estilo platereskoa duen **erretaula** aurkituko dugu, Euskal Herriko lehen berpizkundearen bildumarik bikainenetakoa. Pierres Picart eskultore frantsesarena bide da; kale nagusian eszenarik aipagarrienak daude, hala nola, San Miguel (Oñatiko zaindaria), Espiritu Santuaren etorrera, Amabirjinaren koroatzea eta aita Jaungoikoaren irudia.

KLAUSTROA

Eraikinaren barrualdean **errenazimentu garaiko klastroa** aipatzekoa da. Arkuarteetan pertsonaia mitologiko eta errege-erreginen familiako pertsonaien bikoteak irudikatzen dituzten 32 medailoi daude. Jarraitu beharreko eredu izan nahi dute, hainbat balore lortzeko (maitasunaren, leialtasunaren eta garbitasunaren bertutea). Aipatu behar da ere **Jorge Oteizaren eskultura** bat, "La Tierra y La Luna, Antonio y Francisco" izenekoa.

KASETOIDURAK

Gainera, **mudejar estiloko kasetoidurak**, Avilatik zetozenak, Gibaja tailu-gileak landu zituen. Egurrean eginda daude, polikromatu gabe.

GAURKO EGUNEAN

Une honetan Sancti Spiritus Unibertsitateak hainbat erakunde hartzen ditu, **Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa**, **Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutua** eta **Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea**, hain zuzen ere.



OBRA ZIBILA: KULTURA ONDASUN BABESTUAK



1. Udaletxea eta Lazarraga Dorretxea.
2. San Migel Errota.
3. Santa Marinako iturria.
4. Oñatiko Atzeko kalea.



Oñatin atentzioa ematen du era askotako eraikuntza zibil historikoak izateak.

Atal honetara horietako batzuk ekarri ditugu.

ZUMELTZEGI DORRETXE

Estilo gotikoa duen erdi aroko eraikina da, XIII- XIV mende artean eraikia, eta oraindik ere familiaren armarrria du. Gebarako kondeek defendatzeko eta Oñatin haien bizilekua izateko erabili zuten.

SANTA MARINA PLAZA

Oñatiko lehen plaza; XII. mendean ere bazegoen. XVIII. eta XIX. mende artean birmoldatua.

Nabarmendu behar ditugu **Madinabeitia Jauregia** (barrokoa), **Antia Jauregia** (barrokoa) eta **Baruena Jauregia** (neoklasikoa). **Erdiko iturria** ere bai, Bertute Teologalekin eta Gurutzearekin.

FORUEN ENPARANTZA

Jose de Lascurain arkitektoak egin zuen proiektua XIX. mendean, Donostiako zabalgunearen egile Antonio de Cortazar-ekin elkarlanean.

Nabarmenezko moduko eraikinen artean dago **udaletxea**, barroko rokoko estilokoa, Martin de Carrera arkitektoak 1778an eraikia, eta hor nabarmentzen da herriko armarrria.

Lazarraga Dorretxe-Jauregia hasieran eraikin gotikoa bazen ere, geroago, jauregia egin zutenean, berritu eta handitu egin zuten. Dorreak fatxadetan dituen esgrafiatuak, Gaztelako

estilokoak dira eta teilatuko lau ertzetan borobil formako garitoiak ditu.

SAN MIGEL ERROTA

Lehen aipamena XV. mendekoa da. Oñatiko kondeena izan zen XIX. mendera arte. Garai hartan, kondearen zerbitzariak behartuta zeuden euren garia han bertan ehotzen, 1929an zerrategi bihurtu arte. Edozelan ere, irina egiteko lantegi zaharraren aztar-nak gorde zituzten, eta horiek Turismo Bulegoan bisitatu daitezke gaurko egunean. 1983az geroztik Oñatiko Udalarena da.

Oñatiko Baserriak eta Ermitak

Oñati, azalerari dagokionez (108,2 km²), Gipuzkoako herririk handiena da. Hamasei auzo ditu eta horietan leku ikusgarriak aurki ditzakegu, benetan liluratzekoak: baserrietako herri arkitektura, ermitak...

Horren adibidea **Torrekua** baserria da, **Torreauzo** eta **Zañartu** auzoetara joateko zubi zaharraren ondoan kokatua. Beste adibide bat, gain batean, **Santxolopetegi** auzoan, **Magdalena ermita** dugu. Borjako San Frantziskoren bizileku izan zena 1551 eta 1553 artean, Jesusen Lagundiaren nobizio lanak bete bitartean.





OBRA ERLIJIOSOA: SAN MIGEL PARROKIA



1. San Migel Parrokia eta Zumeltzegi Dorretxea.
2. Aldare Nagusia.
3. Gebaratarren kriptak.
4. Erreka gaineko klaustroa.



Parrokia XV. mendeko eraikina da eta estilo gotikoa du. Mende hartan handitu egin zuten, biztanle kopuruak gora egin zuelako. Gaurko egunean, lau nabe ditu, eta horietan agertzen dira garai bakoitzeko estiloak.

ALDARE NAGUSIA

Aldarea azpimarratzeko elementuen artean dago; haren **erretaula nagusia**, **estilo barroko churriguereskoa**, San Migel Arkanjelua omenez egina, Juan Bautista de Susoren lana da.

KRIPTA

Aldare nagusiaren azpian, XVII. mendeko **kripta** dago, Gebarako kondeen hilobi lekua. Bertan, **estilo gotikoa duen Pero Velez de Gebara jaunaren hilobia** aurkituko dugu, alabastrozkoa da.

PIETATEAREN KAPERA

Pietatearen Kapera, aldare nagusiaren albo batean dago eta erre-nazimenduko estilokoa da. Bertan aipatzekoak dira Rodrigo Mercado de Zuazolaren **hilobia**, Pierres Picart-ek egindako obra, eta Diego de Siloé-k Filabres-ko marmolean egindako **mausoleoa**. Azken hau Granadako Katedraleko arkitektoa eta Burgosko Katedraleko Urrezko Eskaileretako eskultorea izan zen.

Erretaulak (1533-1536) estilo platereskoa du, Testamentu Berriaren hainbat eszena agertzen dira, eta estilo berdineko **burdin hesiaz** itxita dago, goiko aldeak Pietatea agertzen du. Kapera hau arte kontuetan **Euskal**

Herriko hilobi multzorik aberatsenetarikoa da.

ERROSARIOAREN KAPERA

Errosarioaren Kapera aldarearen beste aldean kokatua dago, Kalahorrrako zaindarien eta martirien **koadroa** eta **bataiarria** nabarmenduz.

KLAUSTROA

Nabarmentzekoa **klaustroa** da; aparta, erreka gainean eraikita baitago (Ubao erreka); estilo gotiko flamigeroa du eta Rodrigo Mercado de Zuazolak babestu zuen, bere hilobi kapera jasotzearen truke.

SARRERA NAGUSIA ETA DORREA

Elizaren azken eraikuntzak **sarrera nagusia**, estilo barrokokoa, eta **dorre** neoklasikoa dira, biak XVIII. mendekoak.

Oñatiko Erretaulak


Azpimarratu behar da **Oñatiko erretaulen ondare balioa**. Erretaula plateresko hauek bisitatzea gomendatzen dugu: Sancti Spiritus Unibertsitateko kaperakoa (XVI), San Migel Parrokiako Pietatearen kaperakoa eta Bidaurretako Monastegikoa; barrokoak (XVIII) Bidaurretan eta Erretaula Nagusia San Migel Parrokian, eta azkenik Arantzazuko Santutegiko erretaula nagusia (XX).



OBRA ERLIJIOSOA: BIDAURRETAKO MONASTEGIA



1. Bidaurretako Monastegia.
2. Aldare Nagusia.
3. Erretaula platereskoa.
4. Monastegia, hospederiatik.



Eraikin gotiko-errenazentista, 1510-1520 artean eraikia eta Juan Lopez de Lazarragak sortua, Errege Kontseiluko idazkaria eta Errege Katolikoen Kontulari Nagusia.

Klaratar mojentzako klausura

komentu bat izanik (frantziskotarren ordenakoa), pobretasun botoa nabarmentzen da eraikinaren soiltasunean.

ELIZA

Gotiko isabelino estiloko **eliza** honek, nabe bakarra eta gurutze planta forma du, Palentziako katedralean lanean aritu zen Juan de Ruesga arkitektoak eraikia. Kanpoaldeko dekorazioak ezaugarri hauek ditu: **bolak** (Gaztelako motibo tipikoa) eta errege-erreginen **armarriak**, ordena nagusia eta fundatzaileak.

ERRETAULAK

Bi erreteula dira aipatzekoak; nagusiena barroko rokokoko (1753) estilokoa da, oparoa eta orijinala; urreztatu gabeko egurraren gainean, Ama Birjinaren koroazioa dugu ikusgai, balkoi hegaldun baten kokatua. Gainontzeko eskulturen artean, Ordenaren Santuak ditugu, hiru solairu osatzen duten koadroetan banaturik.

Bestea, gaur egun fundatzailearen hilobiaren ondoan kokatuta dagoen **erreteula platereskoa** (1533) dugu, kronologikoki, **Gipuzkoako lehen erreteula errenazentista** da eta arte balioari dagokionez lehenetakoa da. Lehen gorputza Testamentu Berriari buruzkoa da eta bigarrena, Zaharrari buruzkoa.

HILOBIA

Fundatzaileen xaloaz gain, Oñatiko beste hainbeste familiaren 218 hilobi ere badaude elizan.

Sevillako katedraleko planoa

Nabarmendu behar da 2008ko urtean komentuan aurkitu zutela Sevillako katedraleko erabateko planorik zaharrena.





OBRA ERLIJIOSOA: ARANTZAZUKO SANTUTEGIA



1. Apostoluen frisua.
2. Arantzazu, Urbiatik.
3. Kriptako Kristo gorria.
4. Arantzazuko Santutegia.



Arantzazuren sorrera elezahar batekin lotzen du tradizioak; hark dio Rodrigo de Balzategi izeneko artzain bati amabirjina agertu zitzaiola elorri zuri batean eta artzainak, aho zabalik, galdetu zion: “Arantzan zu?”.

Arantzazu sinestunentzat eta erromesentzat ezinbesteko erreferentzia izan da, **Frantziskotarrak** orain 500 urte bertan kokatu zirenetik. Baina eragin erlijiosoaz gain, eginkizun erabakigarria izan du euskal kulturaren erreferentzia moduan (literatura, poesia, arkitektura...), garrantzi eta eragin handiko zentroa izan baita.

Ustekabeko edo nahitako suteak izan zituen monastegiak, behin baino gehiagotan (1553, 1622 eta 1834); beste horrenbeste alditan berriro eraiki behar izan zuten.

Oraingo basilika 1950ean hasi ziren eraikitzen, antza denez, ordukoa txikiegia baitzen. Saenz de Oiza eta Laorga arkitektoek egin zuten obra.

FATXADA

Aipatzeko moduko elementuen artean dago basilikaren fatxada; hor nabarmentzen dira **hiru dorreak**, punta zorrotzekoak, **elorri zuriaren** ohoretan, **Pietatea** eta **14 apostoluak**, azken bi horiek Jorge Oteizaren obra.

BARRUALDEA

Eduardo Chillidak egindako **burdinazko ateak** zeharkatu eta gero, bisitariak **erretaula nagusi bikaina** aurkituko du. Lucio Muñoz da egilea, 600 metro karratuzko azalera eta egur tailatuz eta polikromatuz landua,

erdian XIII. mendeko **Amabirjinaren gelatxoa**; haren **horma-irudiak** Xabier Egañak egin zituen, eta azkenik, espazioa argitzen duten **beirateak**, Xabier Alvarez de Eulate jaunak eginak.

KRIPTA

Kriptara jaitsiz gero, Nestor Basterretxearen **pinturak** ikusiko ditugu; gizon-emakumearen eta Kristo Berpiztuaren historiaren eboluzioa erakusten digute pinturok.

Gandiaga Topagunea

Gandiaga Topagunea, eraikuntza berria, baldintzarik gabe topo egin eta hitz egiteko leku bat da. Horren eta basilikaren artean, eraikin txiki bat dago, “Misterio” izenekoak; Jorge Oteizaren eskultura batengatik du izen hori, leku horretan bertan dagoena.

Gandiaga Topaguneko informazio gehiago nahi izanez gero **943 716575 telefonoan** eta **www.arantzazu.org** helbidean topatuko duzu.





TRADIZIOAK



1. Foruen Enparantza.
2. Artzai-txakurren lehiaketa.
3. Aloñako igoera.
4. Korpus prozesioa.



TRADIZIOAK

Oñatin jaiek kultura tradizionalen erro sakonak dituzte. **Korpus eguneko prozesioa** bezain sustraiturik dauden tradizioen biziraupena da aipatzekoa.

San Migel jaiek eta **Errosarioaren amabirjinaren egunak**, haien **bixamonnarekin (biharamunarekin)** batera, bide ematen dute aisialdiko eta kultura jarduera ugari egiteko: Feriak, kontzertuak, danborrada, txarangak, eta abar.

Ardi txakurren lehiaketan, berriz, aukera ezin hobea dugu animaliarik trebeenak lanean ikusteko, artaldea artegietara gidatzeko lanean.

MENDIRA JOATEKO TRADIZIOA

Ezin dugu ahaztu herritarren mendi tradizioa. Horren erakusgarri dira urte osoan egiten diren ospakizunak, adibidez, **San Inazio eguna ospatzea Urbiako zelaian**, edo **urteari agur esatea Aizkorrin**.

Orain dela gutxi abian jarri da **“Aloñako igoera”** mendi froga, udaberrian egin ohi dena.

KORPUSAK

500 urtetik gora duen jai tradizionala dugu **Korpus Khristi**.

Jai honi Iparraldeko euskaldunek **“Phesta Berria”** esaten zioten XIII. mendearen bukaeran; jaiaren muina eta berezitasuna prozesioa da.

Badakigu Oñatin 1478ra orduko **Korpus** prozesioa ospatzen zela, idatzitako agirietan froga daitekeenez eta gaur arte mantendu da tradizioa.

Prozesioaren elementurik esanguratsuenak dira **dantzariak**, balio koreografiko handiko aztarna folklorikoa, eta **apostoluak pertsonifikaturik**, San Migelen aurretik doazela. San Miguel Parrokiako meza nagusia ospatu eta gero prozesioa izaten da.

Ospakizun egutegia

KORPUSAK

Maiatza eta ekaina bitartean. Erljioa eta folklorea uztartzen duen jaia, lehen aipamenak XV. mendekoak dira.

ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

Irailaren 9an.

ARDI-TXAKURREN NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Irailako hirugarren edo laugarren igandean.

SAN MIGEL

Irailaren 29an, Oñatiko jai nagusiak.

ERROSARIOKO AMA

Urriko lehen igandean.





GASTRONOMIA



1. Bakailuz betetako brick-a.
2. Sagardo dastaketa.
3. Ardi gazta.
4. Txokolatea.



Barietate gastronomiko handia du Oñatik; herri plateraz, plater klasikoez edota **euskal sukaldaritzaren tradizioa eta berria** maisutasun handiz bateratzen dituztenez gozatu ahal izango duzu; hauen eskaintza herriko alde zaharrean nahiz auzoetan dauden jatetxe eta merenderoetan aurkituko duzu. Gustuen eta poltsikoen arabera, aukeran izango dituzu “mahaiko” nahiz “barrako” sukaldeak, hauen artean guztiontzat ezaguna den “**pintxoak**” nabarmentzen delarik.

Bertako **espezialitate** eta **postreak** benetan plazer hutsa dira. Komentuetako monjek **erroskilak** eta **tostoiak** egiteko tradizioa zaintzen jarraitzen dute.

Halaber, Oñatin egiten dituzten beste produktu tipikoen artean **gazta** dago. Larre ugari dagoenez, artalde asko dago eta Gomiztegiko artzain eskolaren bidez, gaztak aparteko kalitate maila lortu du.

Besteak beste, honako produktuak aurkituko ditugu: **eztia**, **artisaun ogia**, **txakolina** edo aspaldiko eran hazitako **etxeko oilaskoak**.

TXOKOLATEA: JAINKOAREN

ELIKAGAIA

XVIII. mendean Gipuzkoak “**Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra**” eratu zuen eta XX. mendean hasieran probintzian txokolate-fabrika kopuru handia izan zen. Oñati ez zen salbuespena izan, bederatzi **txokolategi** izan baitziren bertan. Gaur egun, badira hainbat, eta azukrez eta kakao-alez osatutako produktuak egiten dituzte, itxura eta konbinazio anitzekoak,

horien izen zientifikoa “Theobroma”, hau da, “jainkoen elikagaia” da.

Hemengo produktuak

Non erosi hemengo produktuak:

EZTIA

Fernando Lizarralde: Tel. 943 716297.

OGIA

Arantxa Albistegi: Aiausti Baserria, Olabarrieta auzoa. Tel. 943 782895.

GAZTA

Nestor Alzelai. Aldai Baserria, Olabarrieta auzoa. Tel. 943 782372.

Ramon Ugarte. Azkarreta Baserria, Murgia auzoa. Tel. 943 780301.

Gomiztegi. Arantzazu auzoa. Tel. 943 251008.

OILASKOA

M^a Lurdes Oianguren: Etxeberri Baserria, Zañartu auzoa. Tel. 943 781678.

TXOKOLATEA

Txokolateixia: Kale Barria 16.

Tel. 672 080263/ 699 555307.

E-posta: anton.azpiazu@natra.es.

NON JAN

JATETXEAK

Bikoitz : Garibai auzoa, 17.
Tel. 943 782483.

H*Etxe Aundi : Torreauso auzoa, 9.
Tel. 943 781956.
www.etxeaundi.com.

Etxeberria : Kale Barria, 15.
Tel. 943 780460.

Garoa: San Lorenzo, 29.
Tel. 943 781355.

Goiena Txinatar jatetxea:
Kale Barria, 46. Tel. 943 081411.

Goiko- Benta : Arantzazu auzoa, 12.
Tel. 943 781305. www.goikobenta.com.

H*Santuariode Arantzazu** :
Arantzazu auzoa. Tel. 943 781313.
www.hotelsantuariodearantzazu.com.

H*Sindika : Arantzazu auzoa.
Tel. 943 781303.

HSoraluze**: Uribarri auzoa.
Tel. 943 716179.

Txopekua: Uribarri auzoa, 5.
Tel. 943 782698 / 943780571.

Urrintxo: Lezesarri auzoa, 32.
Tel. 943 783479.

Urtiagain: Uribarri auzoa, 33.
Tel. 943 780814.

Zelai-Zabal: Arantzazu auzoa, 38.
Tel. 943 781306. www.zelaizabal.com.

Zotz: Zubillaga auzoa, 1.
Tel. 943 783545.

Zurrust: Bidebarrieta kalea, 6.
Tel. 943 716296.

TABERNAK

Arkupe: Foruen Enparantza, 9.
Tel. 943 781699.

Antton: Euskadi etorbidea, 1.
Tel. 943 782161.

Debatarra: Otadui zuhaiztia, 54.
Tel. 943 780410.

Urbiako Fonda: Urbia, Aizkorriko
Parque Naturala. Tel. 943 781316 /
943 585030. Aste barruan itxita,
azaro eta maiatza bitartean.

MERENDEROAK

Lizar-Etxe: Olabarrieta auzoa, 83.
Tel. 943 781896.

NON LO EGIN

H*Ongi Etorri : Kale zaharra, 19.
Tel. 943 718285.

HSoraluze**: Uribarri auzoa.
Tel. 943 716179.

H*Santuariode Arantzazu** :
Arantzazu auzoa. Tel. 943 781313.
www.hotelsantuariodearantzazu.com.

H*Sindika : Arantzazu auzoa.
Tel. 943 781303.

P*Goiko Benta: Arantzazu auzoa, 12.
Tel. 943 781305. www.goikobenta.com.

H*Etxe Aundi: Torreauso auzoa, 9.
Tel. 943 781956. www.etxeaundi.com.

Arregi nekazalturismoa: Garagaltza
auzoa, 21. Tel. 943 780824 /
943 783657. www.nekatur.net/arregi.

Urbiako Fonda: Urbia, Aizkorriko
Parque Naturala. Tel. 943 781316 /
943 585030. Aste barruan itxita,
azaro eta maiatza bitartean.

OÑATIKO TURISMO BULEGOA: BISITA GIDATU MONUMENTALAK

1. AUKERA: SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA

Iraupena: 30 minutu inguru.

2. AUKERA: SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA ETA SAN MIGUEL PARROKIA

Iraupena: 60 minutu inguru.

3. AUKERA: OÑATI DENONTZAT (IBILBIDE EGOKITUAK)

Iraupena: Ordu eta 45 minutu.

4. AUKERA: OÑATI MONUMENTALA

Iraupena: 2 ordu eta 30 minutu.

BISITA GIDATU BEREZIAK: UDAN, ASTE SANTUTAN ETA ZUBIETAN

PREZIOA

Eskatu prezioa. Prezio bereziak talde eta ikasleentzat.

ORDUTEGIA

Apiriletik irailera arte:

- Lanegunak: 10:00-14:00 / 15:30-19:30
- Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:30-18:30
- Igandeak: 10:00-14:00

Urritik martxora arte:

- Lanegunak: 10:00-13:00 / 16:00-19:00
- Larunbatak: 11:00-14:00
- Igandeak: 11:00-14:00

KONTAKTUA

Telefonoa: 943 783 453

E-posta: turismo@oinati.org

Web orria: www.oinati.org

ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK

ORDUTEGIA (astelehenetan itxita)

- **Martxotik maiatzera arte eta urrian:**

10:00-14:00 / 15:00-18:00

- **Ekainetik irailera arte:**

10:00-14:00 / 15:00-19:00

- **Azarotik otsailera arte:**

10:00-14:00 / 15:00-17:00

- **Zubi, Aste Santu eta jaiegunetan:**

10:00-14:00 / 15:00-19:00

Aurrez erreserbatzea gomendatzen dugu.

KONTAKTUA

Telefonoa: 943 082 000

E-posta: arrikruz@oinati.org

ARANTZAZU SANTUTEGIKO TURISMO BULEGOA

ORDUTEGIA

- **Aste bukaeran eta zubietan:**

10:00-14:00

- **Aste Santutan, Pazko astean eta udan:**

10:00-14:00 / 15:00-18:30

KONTAKTUA

Telefonoa: 943 718 911 / 943 796 463

Web orria: www.turismodebagoiena.com

GOMIZTEGIKO ARTZAIN ESKOLA

ORDUTEGIA

- **Aste bukaeran eta zubietan:**

10:00-14:00

- **Aste Santutan eta Basko astean eta udan:**

10:00-14:00 / 15:00-18:30

KONTAKTUA

Telefonoa: 943 251 008

Web orria: www.gomiztegi.com

◀◀ **Bergara (15 Km. - AP-1 / A-8)**
Arrasate (12 Km. - AP-1 / A-8)
Bilbao (71,6 Km. - 56 minutu)
Donostia-San Sebastian (73,9 Km. - 59 minutu)
Vitoria-Gasteiz (46,7 Km. - 43 minutu)

GORIBAR AUZOA

INTERESGUNEAK


28. Postetxea
29. Osasun zentroa
30. Santa Ana Antzokia
31. Kiroldegia
32. Pilotalekua-Azoka
33. Kultur Etxea
34. CPD Centro de Procesos de Datos
35. Larraña Institutua
36. Gaztelekua
37. MIK Koop. Elk.
38. Bake Epaitegia
39. Artxibo Historiko Probintziala
40. San Martin Egoitza
41. Udaltzaingoa
42. MU Mondragon Unibertsitatea

ONDARE ARTISTIKOA

1. Udaletxea
2. Sancti Spiritus Unibertsitatea
3. Zumeltzegi Dorretxea
4. Hernani Etxea
5. San Migel Parrokia
6. Bergantzo o "Zaratekua"
7. Lazarragako Dorretxea
8. Antia Jauregia
9. Baruena Etxea
10. Madinabeitia Etxea
11. Otadui-Jausoro Etxea
12. Urain o Zubiaur Dorrea
13. Bidaurretako Monastegia
14. Santa Ana Antzokia
15. Olakua Dorrea
16. San Martin Ermita
17. San Anton Plaza
18. "Don Pedruena"
19. Foruen Enparantza
20. M.Aozarazaren Jaiotetxea
21. Maiatzaren 1a Plaza
22. Laterandarren Eliza
23. San Lorentzoko Ermita
24. Anaizeen Plaza
26. San Migel Errota
- Turismo Bulegoa
27. Arantzazu
- Arrikutz - Oñatiko Kobak

GARAGALTZA AUZOA

ERREK AUZOA





UGARKALDE
AUZOA

LARRAÑA
AUZOA

SAN LORENTZO
AUZOA

OLAKUA
AUZOA

ALDE
OA

Legazpi (12 Km.)
Zumarraga (15 Km. - N1)
Donostia-San Sebastian (75 Km.)

SAN MARTIN
AUZOA

MURGIA
AUZOA

BEREZA
AUZOA

27 ARANTZAZU 9 Km.
ARRIKRUTZ - OÑATIKO KOBAK

Donostia/ San Sebastián	73,9 Km. 59 min.
Bilbo/Bilbao	71,6 Km. 56 min.
Vitoria/Gasteiz	46,7 Km. 43 min.
Iruña/Pamplona	95,6 Km. 85 min.
Biarritz	122 Km. 86 min.



OÑATIKO TURISMO BULEGOA

San Juan, 14
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 34 53
Fax: 943 78 30 69
E-posta: turismo@oinati.org
www.oinati.org



ORDUTEGIA APIRILETIK IRAILERA

Lanegunak: 10:00-14:00 / 15:30-19:30
Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:30-18:30
Igandeak: 10:00-14:00

ORDUTEGIA URRITIK MARTXORA

Lanegunak: 10:00-13:00 / 16:00-19:00
Larunbatak: 11:00-14:00
Igandeak: 11:00-14:00